



Basque Music at Vic: euskal artistentzako deialdia

Euskal Herriko Musika Bulegoak, [Etxepare Euskal Institutuak](#) eta Euskadiko Soinuak-ek (Kultura Sustatu – Eusko Jaurlaritza), **deialdi** berri baten inguruko informazioa luzatu nahi dizuegu; **irailaren 18 eta 21aren artean** burutuko den **Mercat de la Musica Viva de Vic** jardunaldien aurtengo edizioan, nahi duen edozein euskal taldek edo bakarlariek **showcasean parte har dezan deialdia**, hain zuzen ere.

Aurkezpena formatu txikikoa izan behar da (hiru pertaide, askoz jota, bateriarik gabe). Interesa duten taldeek edo bakarlariek **honako inskripzio galdetegi hau** bete behar dute.

Showcase honetan parte hartuko duen euskal talde edo bakarlariaren aukeraketaz MMVV-ko antolatzaileak arduratuko dira. Emanaldia EH Sonaren aurkezpenaren ostean burutuko da.

Antolakuntzatik partida bat erabiliko da parte-hartzailaren desplazamendu eta bestelako gastuak ordaintzeko.

Basque Music izenpean antolatuko den Deialdi honetan parte hartu nahi duten talde eta bakarlarientzako izena emateko epea **ekainaren 14an** hasi eta **ekainaren 30ean** amaituko da.

Edozein argibide edo zalantzarako:
info@musikabulegoa.eus
945 123 391

Basque Music at Vic: convocatoria para artistas vascos

Euskal Herriko Musika Bulegoa, el [Instituto Vasco Etxepare](#) y Euskadiko Soinuak (Promoción de Cultura – Gobierno Vasco), **os queremos informar** de la puesta en marcha de una **convocatoria** para que todo **aquel grupo o solista vasco**, pueda participar en el showcase dentro de la edición del **Mercat de la Musica Viva de Vic** del presente año, que se celebrará en entre los días **18 y 21 de septiembre**.

La presentación deberá ser de pequeño formato (tres integrantes máximo, sin batería). Las bandas o solistas interesadas en participar de esta convocatoria deben rellenar **el siguiente formulario de inscripción**.

La elección del grupo o solista que correrá a cargo de la organización del MMVV. La actuación se llevará a cabo tras la presentación de la edición de EH Sona de este año.

Desde la organización se destinará una partida económica para sufragar gastos de desplazamiento y otros de los participantes.

El plazo de inscripción para los grupos o solistas que quieran tomar parte en esta convocatoria auspiciada por Basque Music va desde el **14 hasta el 30 de junio**.

Para cualquier duda o aclaración:
info@musikabulegoa.eus
945 123 391